

EGUNSETI ETENGABEAK

kezkak ezkututzen dira
isiltasun zurian
eta egunsenti etengabeak
hausnarketarako gertatzen dira.

Elurra egin du muinoetan
kontzientziaren oinatzak islatuaz.

Pentsamenduak,
itzal temoso batek
esetsiko balu bezala,
pena baten hatsa
ikusten du.

Urteak aurrera doaz.

INGURUA

Gure ingurua
behe lainoak sorgintzen duenean
sortaldetik datorren basajaunak
zulatu egiten du.

Kanela txotxaren goxoa.

ZIRRIBORROA

Orri zuri hauetako
zirriborro ulergaitzen txanda da.

Hitzordua iritsi da:
hain transzendentala den
izate bakar honi buruzko eztabaida.

Lotan murgildurik
sosegua errailetara jaitsi da.

Izatearen nondik norakoak
pintzelada koloretsuak ditu.

Ostadarrak,
zintzilikaturiko pendulu disdiratsuak
eskaintzen ditu.

Hain dira xamurrak,
zein xamurrak
maitasunaren herrialdean.

Ahantzi ezinezko
pendulu disdiratsuak.

Eguzkiaren lehen printzak ziren,
haize bolada basa batek
esnatu du ustekabeen
gorputz biluzia.

URRATU EGIN DA BIHOTZA

Urratu egin da bihotza
eta jarioa
bide ezezagunetan
barreiatu da.

Eten egin da zuntza.

Arazo,
gaitz eta zailtasunak
iraungi gabeko nahaspiletan.

Garai noble hautsiak.

Oroitzapenak soilik
eskaintzen dituen omenaldietan
presente zaude,
profanatutako hitza.

ATSEGINA I

Naturaren askatasunean
inork irakatsi gabeko doinuak.

Goiztiar hasitako
kolore askotako sinfonia,
ingurune gozo
harmoiatsua.

Pozaren pentagramak
haizea harrotu du.

Hegaldi jostagarriak,
mugimendu haluzinatzailetan islatuak.

SARKOR

Pentsamendu iheskorretan murgildua,
haizearen askatasunak narama
konstelazio nahasietan igeri,
eta badakit, nire arbolaren aterpean,
ez dakit noiz,
kokatuko nauela.

Azken finean
pozen
oinazen
izatearen
erremedio gordina gertatuko da.

Gaur,
intsentsuaren usain sarkor bat
aldameneko arbolan pausatu da.

SOSEGUA

Besterik gabe
maite zaitut,
haut.

Josu Baez